



Bizkaiko Indarkeria
Matxistaren Behatokia
Observatorio de la Violencia
Machista en Bizkaia

TXOSTENA

INDARKERIA MATXISTA JASANDAKO EMAKUMEEI

EMANDAKO ARRETAREN ZIFRAK

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN

2023

AURRERAPENA

2024ko uztaila

SARRERA

Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiak “Genero-indarkeriako...” txostenaren aurrerapena aurkezten du. Behatokiak urtero argitaratzen du txosten hori, Bizkaian emakumeen aurkako indarkeria-egoeretan ematen den laguntzari buruz.

Txosten horren bertsio osoa, “Genero-indarkeriako...”, urteko azken hiruhilekoan argitaratuko da, eta esku hartzeko arlo guztien, informazio-iturrien, aldagaien eta 2023ko datuen desagregazio-mailen berri emango du.

Argitalpen honek esku hartzeko lau esparruri buruzko datuak aurreratzen ditu: soziala, polizia, judiziala eta osasunekoa. Urtean zehar esparru horietako zerbitzuen arreta jaso duen eskariari buruzko adierazle orokorrak jasotzen ditu labur-labur, bai eta aztertutako aldiari zerbitzuetan izandako sarreraren jarraipena egin ahal izateko eboluzio-datuak ere.

Iturri hauen datuak jasotzen ditu:

- ↳ Bizkaiko udalerrriak eta mankomunitateak¹
- ↳ Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila
- ↳ Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila
- ↳ Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila
- ↳ Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila
- ↳ Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila
- ↳ Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

Behatokiari beren erregistroetako datuak ematen dizkioten erakundeen lankidetzaren ezinbestekoa da Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren egoerari eta bilakaerari buruzko ezagutza hobetzeko. Lankidetzaren hori gabe, ezinezkoa izango litzateke “Genero-indarkeriako...” seriearen edizioak egitea. Serie horrek, 2004az geroztik, hainbat iturritako datuak biltzen ditu, Bizkaian kasu horiei ematen zaien arretari buruz.

¹Argitalpen honetan baliabide-mapari buruzko udal-datuak soilik sartu dira.

1. OSOKO GIZARTE-ARRETA

1.1. HARRERA


Bizkaian, bai Foru Aldundiak (BFA) bai udalerri eta mankomunitate batzuek harrera-zerbitzu espezifikoak ematen dituzte emakumeen aurkako indarkeria-kasuei erantzuteko.

Foru-aldundiak berehalako harrera-zerbitzu bat kudeatzen du Bizkaiko lurralde osoan, baita egonaldi ertaineko beharrei erantzuteko zentroak ere.

Lurralde-mapan, udalerriek eta mankomunitateek kudeatutako baliabideak ere ageri dira; harrera-etxebizitzak dira gehienbat². Irudi honek erakusten du laguntza-mota horrek zer irismen izan duen lurraldean 2023an.

1. irudia.

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA
HARRERA-BALIABIDE ESPEZIFIKOAK (ZENTROAK/ETXEAK) 2023



*Aldatu egiten da urtean

Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak
eta Bizkaiko udalerri eta mankomunitateek emandako datuetan oinarrituta


² Barakaldok harrera integraleko zentro bat dauka

BFAko Berehalako harrera-zerbitzua

2023an, **172 emakumek** erabili zuten Foru Aldundiaren Berehalako harrera-zerbitzua. Horien artean, erdia baino zertxobait gutxiagok (% 42) beren seme-alabekin batera jaso zuten zerbitzua; zehazki, 119 emakumek (haurrak adingabeak dira, kasu batean izan ezik). Guztira, **291 pertsonak** erabili zuten harrera-zerbitzua.

Hiru zifra horiek dagozkien serieetako **balio altuenak dira** 2004az geroztik.


Datuek azken 20 urteetan izan duten bilakaerak erakusten du erabiltzaileen bolumenak **gorabeherak** izan dituela. Azken hirurtekoan erabiltzaileen kopuruak gora egin du urtez urte, % 25, % 18 eta % 11, hurrenez hurren.



Iturria: Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta. BFA

2023an, baliabidean egindako **batez besteko egonaldia 37,2 egunekoa** izan da, aurreko urtekoa baino % 16 luzeagoa. Orain arteko batez besteko egonaldirik luzeena da; 2004ko datuekin alderatuz gero, 32 egun luzeagoa da.

2. grafikoa. BFAko Berehalako Harrera Zerbitzuaren batez besteko egonaldia (egunak). 2004-2023 bilakaera



Oharra: 2021eko datuak 01/01etik 08/16ra bitartekoak dira soilik.

Iturria: Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta. BFA

Adierazle horren bilakaerak erakusten du Zerbitzura iristen diren **kasuak gero eta konplexuagoak direla**, eta indarkeriari lotutako arazo gehiago ere egoten direla; era berean, ikusten da **arreta-sistemak zailtasunak dituela** harrera-premiei jarraipena berehala eskaintzeko, beste erakunde edo arreta-eremu batzuen eskumeneko egoitza-baliabideen bidez.

Indarkeria-mota eta erasotzailearekiko harremana


- Kasu gehienetan, **bikotekideak edo bikotekide ohiak** eragindako indarkeriaz ari gara: **guztira 152 emakume (% 88,4)**, eta, horietatik, 138 kasu berriak dira. Kasu ia guztietan (137 emakume) erasotzailea emakumearen gaur egungo bikotekidea da, ez bikotekide ohia.
- **Familia barruko indarkeria** jasan duten 13 emakumek erabiltzen dute Zerbitzua, eta denak dira kasu berriak.
- **Sexu-indarkeria** jasan duten emakumeen beste 7 kasu zenbatu ditugu (aipatutako esparruetatik kanpo); horietako sei 2023an hasi dira zerbitzuan.

2023an zerbitzuan artatutako emakumeen ezaugarriak (kasu berriak)

Jaiolekuari erreparatuta, emakume erabiltzaileen % 63 atzerriko herrialdeetan jaiotakoak dira; guztira, 99 emakume. Zifra hori aurreko urtekoaren berdina da, baita **aldiko balio absoluturik altuena** ere.

Aurreko txostenetan adierazi bezala, 2004tik aurrera baliabide horren erabiltzaileen **profila** aldatu egin da aldagai horri dagokionez.

Atzerriko emakumeen presentzia handitu egin da balio absolutu eta erlatiboetan, eta bat dator EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeen eskariaren beherakadarekin. 2007tik, atzerriko emakumeen ehunekoa handiagoa izan da urtero.



Egoera horren ondorioz sortzen diren hizkuntza-oztopoak gainditzeko, Zerbitzuak itzulpen-zerbitzu bat du, telefono bidezkoa zein aurrez aurrekoa. Azken urtean arabiera, frantsesa, ingelesa, portugesa urdua eta wolofera erabili dira modalitate horietan.

Adinari erreparatuz gero, beste behin ere, **emakume gazteak** dira profil nagusia: hamar erabiltzailetik zazpi ez dituzte 40 urte baino gehiago (% 74). Beste urte batzuetan bezala, adin-tartea zabala da, 18 eta 77 urte bitartekoa.

Emakume erabiltzaileen heren batek (% 33,8) desgaitasun- eta/edo mendekotasun-egoeren (batzuetan, bi-biak) ondoriozko **behar espezifikoak** ditu, eta horrek esku-hartzea eta terapia baldintzatzen ditu.

Hain zuzen, **desgaitasunari** dagokionez, desgaitasun-mota bat edo gehiago dituzten emakumeak sartzen dira Zerbitzuan urtero. Taula honetan, 2012tik aurrerako datuak jaso dira. Aipatzekoa da 2015. urtea, erabiltzaileen % 18,5 baitziren.

1. taula. BFAko Berehalako harrera-zerbitzua. Desgaitasuna duten emakumeak. 2012-2023

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Desgaitasuna duten emakumeen kop.	3	6	9	18	5	11	8	10	14	8	4	13
Erabiltzaile guztien %	3,2	7,4	14,3	18,5	5,3	12,2	7,6	8,9	13,3	10,0	2,6	8,3

Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta.

Berehalako harrera-zerbitzuan egonaldia amaitu ondoren, hamar erabiltzailetik hiruk (**% 29 epe ertaineko harrera modalitatean** jarraitu behar izan zuten (forala edo munizipala), edo horren baliokidean: guztira **50 emakume** izan ziren, 21 adingaberekin. Aukerarik ohikoena BFaren ostaturako laguntza duten komunitate-arretarako zerbitzuak izan dira (% 54), eta bigarren ohikoena, epe ertaineko harrera forala (% 26). Neurri txikiagoan, udal zerbitzuak (% 14) eta BFaren beste zerbitzu batzuk (% 6) erabili dira.

BFAko egonaldi ertaineko harrera-zentroak

Egonaldi ertaineko harrerako foru-zerbitzuak 40 pertsonari eman zien arreta 2023an: 19 emakume eta beren 21 seme-alaba adingabeak (7 neska eta 14 mutil).

Indarkeria-mota eta erasotzailearekiko harremana

- Kasu gehienak **egungo bikotekideak** eragindako indarkeriari dagozkio: **17 emakume (% 89)**, eta horietatik zazpi kasu berriak dira (urte horretan sartu ziren).
- **Familia barruko indarkeria** jasan dutenen bi kasu daude, biak berriak.

Egonaldiaren batez besteko iraupena 259 egunekoa izan da, ia bederatzi hilabetekoa.

Erabiltzaile berri guztiak **Aldundiko Berehalako harrera-zerbitzutik datoz.**

Erabiltzaileen ezaugarriei dagokienez, aipatu beharra dago atzerrian jaiotakoen kopuru altuak aurreko urteetako joerari eutsi diola, eta aurten izan dela **ehunekorik altuena: % 89**. Horrez gain, adinarekin lotutako zaurgarritasun-egoerak identifikatu dira; izan ere, **hamar emakumetik bederatzik ez dituzte 40 urte baino gehiago.**

1.2. AHOLKULARITZA JURIDIKOA


Bizkaiko Lurralde Historikoan, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak ematen duen laguntza juridikoko zerbitzuarekin batera, **auzi aurreko aholkularitza juridikoko doako zerbitzuak** ere badira Bizkaiko zenbait udalerritan eta mankomunitatetan.

Laguntza juridikoko zerbitzu horien bidez, indarkeria-mota horien biktimak diren emakumeei ordenamendu juridikoak ematen dizkien aukerak ezagutarazi nahi zaizkie: zer eskubide dituzten, nola eta noren aurrean salatu behar diren gertaerak, nola eskuratu baliabide juridikoak eta sozialak... Eta horrez gain, beharrezkoa izanez gero, prozesu judizialean esku-hartzea ere bai.

Mapa honek erakusten du laguntza-mota horrek zer irismen izan duen lurraldean 2023an.

2. irudia.

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA
AHOLKULARITZA JURIDIKOA 2023



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak eta Bizkaiko udalerrri eta mankomunitateek emandako datuetan oinarrituta.

BFAko Arreta soziojuridikoko zerbitzua


BFAko **Arreta soziojuridikoko zerbitzuak** familia-zuzenbideari eta tratu txarrei edota sexu-erасoei buruzko informazio juridikoa ematen du, besteak beste. 2023an, zerbitzuak **281 kasu berri** jaso zituen. Horien artean, % 34,5ek (97 emakumek) aholkularitza behar izan zuten bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatik; % 10ek (28 emakumek), familia barruko indarkeriagatik; eta % 3,2k (9 emakumek), aipatutako bi esparruetatik kanpo jasandako sexu-indarkeriagatik. Zifra horiek azaleratzen dute Zerbitzuan hartutako **hamar erabiltzaile berritik bost** (% 47,7) indarkeria-mota horietakoren batekin lotutako egoeraren batean zeudela.

Datuak aurreko urtekoekin alderatuz gero, 2023ko zifrek erakusten dute **indarkeria-kasuen kopurua % 4,7 hazi** dela, eta gainerako kasuak % 16 murriztu direla.

Dena den, kopuru hori ez da 2020ko osasun-krisiaren aurreko urteetakoa bezain altua. Bestetik, aurreko argitalpenetan adierazi den bezala, datuek urte horretan bizitako egoeraren ondoriozko ziurgabetasuna ere islatzen dute, eta ziurgabetasun horrek inhibizio-faktore gisa eragin du bizitzako aldaketa-prozesuei aurre egiteari dagokionez; adibidez, Zerbitzuan eskainitako laguntzarekin lotutako prozesuei.

2023an, indarkeria-kasuen ehunekoa serieko **altuena** izan da, eta serie horrek gorako joera agerikoa du; izan ere, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriako kasuak gero eta ugariagoak izan dira.

Grafikoak erakusten du **arazo horren intzidentziak goranzko joera izan duela zerbitzuaren erabiltzaile diren emakumeen artean; alegia, gero eta gehiago direla urtean baliabidera jo duten emakume erabiltzaileen artean erregistratutako kasu berriak.** Artatutako erabiltzaileen kopuru osoan gorabeherak egon badira ere, esan daiteke kasuistika horrek igoera erregularra eta ia etengabea izan duela bi hamarkadetan.




Oharra: 2020az geroztik jasotako datuak aurrez aurreko arretari soilik dagozkio; izan ere, urte horietan arreta telematikoa ere erregistratu zen. Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria

2023an **97 erabiltzaile berriri** eman zitzaien arreta indarkeria-mota horrengatik, eta, kasu horien artean, gehienetan (% 71) ezkontidea edo bikotekidea izan zen erasotzailea; gainerako kasuetan (% 29), berriz, erasotzailea ezkontide edo bikotekide ohia izan zen.

Zifra horiek eta pandemia (2020) baino lehenago ohikoak zirenak nahiko antzekoak dira; izan ere, 2013 eta 2019 urteen artean kasuen kopurua ehundik gorakoa izan zen. 2023an kopurua % 9 hazi zen aurreko urtekoarekin alderatuta. Hori eta aurreko bi urteetako igoyerak kontuan izanda, ondoriozta daiteke eskarien kopurua lehenagoko balioetara iristen ari dela pixkanaka.

Azken urteetako datu ezohikoak alde batera utzita, aldi osoan ikus daiteke **bikotekidea edo bikotekide ohia erasotzailea den kasuak etengabe ugaritu** direla Aldundiko zerbitzu horretan.



Oharra: 2020az geroztik jasotako datuak aurrez aurreko arretari soilik dagozkio; izan ere, urte horietan arreta telematikoa ere erregistratu zen. Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta

Erabiltzaile berri horien ezaugarriei dagokienez, ohikoa den bezala, erdiko adinetako emakumeak dira (31 eta 50 urte artean), batez ere, baliabidean daudenak: **hamar erabiltzailetik sei** (% 61).

Aurreko urteen antzera, gehienak (% 71) EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeak dira, eta gutxiago dira atzerrian jaiotakoak (% 29).

Erabiltzaileen % 13,4ak desgaitasunen bat du.

Erabiltzaileen % 42k (41 emakumek) salaketa jarri zuten Zerbitzua erabili baino lehen; eta, horien artean, % 61ek beren aldeko Babes-agindua lortu zuten.

Familia barruko indarkeria

2023an, Zerbitzuak aurrez aurreko arreta eman zien **kasu berriak ziren 28 emakumeri**, familia barruko indarkeria jasotzeagatik. Gehienetan, erasotzailea **emakumearen aurrekoa (% 64,3) edo ondorengoa (% 31,2)** zen; gainerako kasuetan, berriz, beste era bateko familia-lotura zuten.

Ohikoa den bezala, familia barruko indarkeria jasan duten emakume gehienak 50 urtetik gorakoak (% 32,1) edo adingabeak (% 43) dira; 2023ko erabiltzaile berrien hiru laurden adin-tarte horietan daude.

Zerbitzu horretan ez da ohikoa atzerrian jaiotako erabiltzaileen kontsultak jasotzea familia barruko indarkeria dela-eta. Joera hori mantendu egin da 2023an, lau kasu bakarrik erregistratu baitziren (% 14).

Erabiltzaileen erdiak baino gehiagok (% 53,6k) gertakariak salatu zituzten Zerbitzua erabiltzen hasi baino lehen, eta, lau kasutan, beren aldeko Babes-agindua zeukaten.

Sexu-indarkeria


2023an, Aldundiko zerbitzuak aholkularitza juridikoa (aurrez aurrekoa) eman zien **kasu berriak ziren 9 emakumeri**, bikote- edo familia-harremanetik kanpo sexu-indarkeria jasan zutelako.

1.3. ARRETA PSIKOLOGIKOA

Bizkaiko Foru Aldundiak arreta psikologikoko **zerbitzu espezializatu**a eskaintzen du, indarkeria matxistan espezializatutako zerbitzua, hain zuzen ere. Baliabideak hainbat arretagune ditu Bizkaiko lurraldean.

Era berean, arreta psikologikoko programak kudeatzen dituzte Bizkaiko zenbait udalerrri eta mankomunitatek. Gehienak orokorrak dira, eta ez daude indarkeriara berariaz bideratuta. Gainera, programa horietako batzuek biztanleria osoa dute jomuga, eta beste batzuek, berriz, emakumeak soilik. Kasu askotan, indarkeria matxistarekin loturiko arazo espezifiko bat hautematen denean, pazienteak Aldundiko programa espezializatura bideratzen dira.

3. irudia.



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak eta Bizkaiko udalerrri eta mankomunitateek emandako datuetan oinarrituta.

BFAko Indarkeria matxistaren biktimei laguntza psikologikoa emateko zerbitzua (Esnatu)

BFAko Arreta psikologikoko zerbitzu espezializatua martxan egon da Bizkaian 1992tik. Alabaina, arreta Bilbon soilik ematen zen 2006ra arte. Urte horretatik aurrera, deszentralizatu egin zen pixkanaka, eta horrek nabarmen erraztu zuen biztanleriak arreta espezializatu horretara jotzea. Prozesu hori hurrengo hamarkadan zehar garatu zen, eta, 2015ean, arreta-guneak zeuden Bilbon, Markina-Xemeinen, Zallan, Ugaon, Durangon, Gernika-Lumon eta Igorren. 2023an, zerbitzua lurraldean barrena zabaltzen jarraitzeko, **beste hiru gune ezarri ziren Leioan, Getxon eta Portugaleten**³.

Programaren egitura aldatzeaz gain, zerbitzua emateko ordutegia zabaldu egin da, behar bezala erantzun ahal izateko urtez urte hazten doan eskaerari, hurrengo ataletan jasotako kopuruen bilakaerak erakusten duten moduan. 2023an, baliabidea astean 536 orduz egon da martxan gutxienez.

Zerbitzua hainbat programaren bitartez ematen da, eta kontuan hartzen da zer kolektibori ematen dien arreta, eta zer arazorengatik. 2023an, **1.779 pertsonak** jaso zuten arreta zerbitzu honen bidez (% 90,4 emakumeak ziren). Haietatik, **1.605 emakume eta neska** programak jorratzen dituen bi indarkeria-motetako baten biktima izan ziren.

Taula honetan, urtean arreta jaso duten pertsonen –helduak eta adingabeak– banaketa ageri da:

2. taula. BFAko Arreta Psikologikoko Zerbitzua. Artatutako pertsonen kopurua, arazoa, sexua eta adina 2023.


	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
HELDUAK	1.618	1.480	138
- Bikotekideak edo ahaideren batek eragindako indarkeria	1.311	1.258	53
- Sexu-indarkeria	132	126	6
- Zeharkako biktimak	104	92	12
- Erasotzaileak	71	4	67
ADINGABEAK	161	129	32
GUZTIRA	1.779	1.609	170

Iturria: BFAren datuak oinarritzat hartuta egina. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

³ Txosten hau egin zenean (2024ko ekainean) beste arreta-gune bat ere ireki zuten: Bermeokoa.


2023an artatutako pertsonen kopurua **serie historikoko baliorik handiena** da.

- ↳ Aurreko urtearekin alderatuta, **% 17,7ko igoera** esan nahi du. Aldaketa horrek aldiko aldaketarik nabarmenena berdindu du, hau da, 2015ean erregistratu zena orduko deszentralizazio-prozesuaren ondorioz.
- ↳ Ikuspegia aldiaren hasierara zabaltzen badugu, ikus daiteke 2023an artatutako pertsonen kopurua 2005ekoa baino 2,7 aldiz handiagoa dela.



Iturria: BFAren datuak oinarritzat hartuta egina. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

Artatutako pertsonen kopurua orokorrean hazi da aldian zehar, arazoa eta profila edozein direla ere. Erasotzaileen taldeak soilik ditu irregulartasunak.



Iturria: BFAren datuak oinarritzat hartuta egina. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

2023an **hamar pertsonatik ia zazpi (% 67) kasu berriak ziren**, eta Esnatun tratamendua hasi zuten edo hasitako tratamenduari berriz ekin zioten.

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria

Zerbitzuan artatutako pertsona heldu gehienek **bikotekideak edo bikotekide ohiak** eragindako indarkeriaren ondorio psikologikoak gainditzeko jaso zuten tratamendua. Kasu kronikoak eta larriak ziren gehienak.

2023an, **kasu berriak ziren 797 emakumek** jaso zuten arreta. Datu horrek agerian uzten du **hilean 66 emakumek abiatzen dutela terapia bat** programan, indarkeria-mota horren ondorioz (23 kasu hilean 2006an).

Erabiltzaile berrien zifra serieko altuena da; orain arte 2015ekoa zen altuena (619 erabiltzaile berri). 2022 urteko datuarekin alderatuta, 2023koa % 85 handiagoa da.

Familia barruko indarkeria

Familia barruko indarkeria dela-eta, kasu berriak ziren **51 emakume** iritsi ziren Zerbitzura, aurreko urtean baino % 50 gehiago (34 emakume 2022an).

Sexu-indarkeria

Zerbitzuko datuen arabera, 2023an 126 emakumeri eman zitzaion arreta sexu-indarkeriagatik, 2022an baino % 15,4 gutxiagori. Urte horretan erregistratu zen serieko baliorik handiena. Alabaina, kasu berrien zifra (**70 emakume**) bat dator azken urteetan jaso diren datuekin; izan ere, 2020az geroztik, indarkeria-mota horren biktimen kasu berriak 70 eta 75 artekoak izaten dira urtero.

Adingabeak

2023an 161 adingabek jaso zuten arreta Esnatun: 129 neskak eta 32 mutilek. Bai nesken kopurua bai kopuru osoa serie historikoko **balio maximoak** dira.

Horrez gain, **kasu berriak diren adingabeen kopuruak ere serieko balio handienak** ditu: 90 neska eta 25 mutil, guztira 115 adingabe.

2023an jasotako datuek azaleratzen dutenez, biktima adingabeei emandako **tratamendu berrien 1.042 espediente** ireki edo berrabiarazi dituzte Zerbitzuan 2004tik, eta gehienak **neskei (% 74)** dagozkie.

1.4. GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOKO ESKU-HARTZEA, ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALA KOMUNITATE-ARRETARAKO ZERBITZUAK.

1.4.1. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzerako, esku-hartze psikosozialerako eta aholkularitza soziojuridikorako zerbitzua, "Zerizan"

Emakumeek eta beren familiek jasaten duten indarkeria matxistak kalte soziala eragiten du. **"Zerizan"**⁴ programak modu integralean tratatzen du kalte hori. Gizarte-laguntza, gizartean eta hezkuntzan esku hartzea, esku-hartze psikosoziala, aholkularitza soziojuridikoa eta **ostaturako laguntza** eskaintzen dizkie bestelako baliabiderik ez duten emakumeei.

2023an, guztira 172 pertsonak jaso zuten arreta Zerbitzu horren bidez: 93 emakume, 78 seme-alaba (adin txikikoak ziren % 72) eta ahaide bat. Emakumeen kopurua aurreko urtekoaren antzekoa da, baina % 3,3ko alde txikia dago.

Kasu gehienetan **bikotekidea edo bikotekide ohia zen erasotzailea (% 95)**, gainerako kasuak familia barruko indarkeriari dagozkio (% 5).

Artatutako emakumeen % 28 urte horretan sartu ziren programan: 26 kasu berri; jarraian azalduko ditugu beren ezaugarriak.


Adinari dagokionez, aipatzekoa da erabiltzaileen arteko adin-tartea; izan ere, 20 eta 67 urte artekoa da. Datu horrek agerian uzten du askotariko prozesu eta bizitza-aldiak ikus daitezkeela erabiltzaileen artean. Adinaren banaketa aldatu egiten da, indarkeria bikotekideak/bikotekide ohiak eragindakoa ala familia barrukoa den:

- Bikotekidea/bikotekide ohiak eragindakoa: batez besteko adina 45 urte da. Datuak tarteka sailkatuko bagenitu, erdiko adinek (31 eta 50 urte artean) kasuen % 62 hartuko lukete.
- Familia barruko indarkeria: batezbestekoa 28 urte da. Kasu honetan, 18 eta 30 urte bitarteko tartean dago emakumeen % 80.

Kasu bakoitzak jasan duen indarkeria-motari dagokionez, beste urte batzuetako joera mantendu da: erabiltzaile berri guztiek jasan dute indarkeria psikologikoa, eta horietatik bakarrik ez du jaso bestelako indarkeriarik. Indarkeria-mota hori ezin da gainerakoengandik bereizi, indarkeria-ekintza guztiek beti ekartzen dutelako kalte psikologikoa.

⁴ BFAk Emakumeen aurkako etxeko indarkerian espezializatutako familian esku hartzeko programa bat zeukan, indarkeriaren biktima ziren eta tratatu txarren emakume bizi zen etxebizitzan jarraitzen zuten edo hara itzultzen ziren emakumeei babes psikosoziala emateko, baita haien ardurapeko seme-alaba adingabeei ere. Programa horretatik sortu da Zerizan.

2023ko datuek erakusten dutenaren arabera, kasu gehienetan **hainbat indarkeria-mota nahasten dira**.



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta

Erabiltzaile berrien erdiak (13 emakumek) **seme-alabak dituzte ardurapean**, eta seme-alaba gehienak adingabeak dira (% 70):

- Guztira 14 adingabek jasotzen dute arreta programan: 6 neska (% 43) eta 8 mutil (% 57).
- Batez beste, 8 urte dituzte. Datuak tarteka sailkatuz gero, argi ikusten da adingabeen gehiengoak (% 79) ez dituztela hamaika urte baino gehiago.
- Amek jasan duten indarkeria bikotekideak/bikotekide ohiak eragindakoa da.

Erabiltzaileen ia % 39ak Zerbitzuak eskaintzen duen **ostaturako laguntza** jaso behar izan zuten: 10 emakume eta 6 seme-alaba izan ziren. Egonaldiaren luzera askotarikoa izan zen: kasu batzuetan, sei hilabetetik beherakoa (% 40); beste batzuetan, sei hilabete eta urtebete artekoa (% 40); eta beste batzuetan, urtebetetik gorakoa (% 20).

1.4.2. Arreta psikosozialerako eta familiako esku-hartzerako programa, indarkeria matxistaren biktima diren eta babesgabetasun-egoera larrian dauden emakumeen familia- edo bizikidetzaren unitateei arreta emateko, "Sua"

Sua programa indarkeria matxistaren biktima diren eta babesgabetasun-egoeran dauden emakumeei (eta beren familiei) laguntza emateko diseinatu da, eta indarkeria-mota horrek eragindako kalteei aurre egitea du helburu, gizartean eta hezkuntzan laguntza emanez eta arreta psikosozialaren bidez. Zerbitzu hori osatzeko, **ostaturako laguntza** ere ematen du, beharrezkoa den kasuetan.

2023an **94 pertsona** artatu zituzten programa horren bitartez: **48 emakume eta 46 adingabe**.

Emakumeen kopurua 2022an baino % 37 handiagoa izan zen.

Erabiltzaileen erdia baino gehiago (25 emakume, % 52) 2023 urtean hasi ziren programan (kasu berriak):

- Erabiltzaile gehienek kasuan, **bikotekideak/bikotekide ohiak** eragindako indarkeria izan zen programan hasteko arrazoi nagusia: 21 emakume, hau da, kasuen % **84**. Emakume bat familia barruko indarkeriaren ondorioz sartu zen programan, eta sexu-indarkeriarekin lotutako hiru kasu jaso ziren.
- Emakumeen adina 18 eta 50 urte artekoa da, eta batezbestekoa 34 urte da. Datuak tarteka sailkatuz gero, erabiltzaile gehienak **40 urtetik beherako** heldu gazteak dira (% **64**), beste programa batzuetan gertatzen den bezala.
- Aurreko urtean bezala, **hamar emakumetik sei atzerrian jaiotakoak dira**.
- Kasu gehienetan indarkeria-mota bat baino gehiago jasan dute: psikologikoa kasuen % 100ean; fisikoa eta soziala kasuen % 92an, proportzio berean; sexuala % 88an; eta ekonomikoa % 80an.
- Gehienek (% 76) seme-alabak dituzte. Kasuen heren batean baino gehiagotan (% 36), seme-alabak emakumearen ardurapean daude.
- Kasuen **erdiak** (13 emakumek eta 10 adingabek) programak eskaintzen duen **ostaturako laguntza** jaso behar izan zuen, eta egonaldiak sei hilabete eta urtebete artekoak (% 54), sei hilabetetik beherakoak (% 23) eta urtebetetik gorakoak (% 23) izan ziren.

1.4.3. Beregain-Ailara programa

Programa horrek guraso bakarrak diren eta gizarte-bazterketa zein babesgabetasuna pairatzen duten emakumeen inklusio-beharrak asetzeari du helburu. Ostaturako laguntza ere ematen du beharrezkoa den kasuetan.

Urtean zehar, 15 emakumek eta 17 adingabek jaso zuten arreta programa horren bidez.

Erabiltzaileen erdia, gutxi gorabehera (% 47), kasu berriak ziren: 7 emakume eta 9 adingabe.

- Indarkeria-motari eta emakumeak erasotzailearekin duen harremanari erreparatuz gero, agerikoa da **kasu gehienetan bikotekidearen eskutik jasan dutela indarkeria**. Familia barruko indarkeriarekin lotutako kasu bat identifikatu zen.
- Beregain programan artatutako emakumeak adin-tarte oso gaztetakoak dira: 21 eta 30 urte arteko tartean daude erabiltzaileen % 71, eta erabiltzaile guztiek dituzte 40 urte baino gutxiago.
- **Kasu batean izan ezik**, erabiltzaile berriek **ostaturako laguntza** jaso behar izan zuten. Egonaldiak laburrak (sei hilabetetik beherakoak), ertainak (sei hilabete eta urtebete artekoak) eta luzeak (urtebetetik gorakoak) izan ziren proportzio berean.


1.5. FAMILIAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA, GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN ADINGABEETAN ESPEZIALIZATUA

BFAko **Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatutako familian esku hartzeko programa** 2016ko azken hiruhilekoan jarri zen martxan. Kolektibo hauei ematen die arreta: genero-indarkeriako testuingurutan bizi izan diren adingabeei; beren amei edo zaintzaileei; beren aitei, erasotzaileak ez direnean, eta haiekin bizi diren senideei; aitei, erasotzaileak direnean (betiere esku-hartzeak ez baditu adingabeak edo beren ama arriskuan jartzen); eta bikotekideak hildako emakumeen seme-alaba adingabeei.

2023an, guztira **118 pertsona** artatu zituen programak: **70 adingabe, 46 emakume** (adingabe horien amak, genero-indarkeriaren biktimak) **eta 2 ahaide**. Guztira, 47 familiatako pertsonen eman zitzaizen arreta.

Programaren bilakaerari erreparatuz gero, ondoriozta daiteke arreta jaso zuten adingabeen eta familien kopurua bikoiztu egin zela 2017 —programa urte osoan martxan egon zen lehen aldia— eta 2018 urteen artean. Eskaria are gehiago hazi zen 2019an, eta hirurteko hartako maximoa izan zen orduan; izan ere, urte horretan arreta jaso zuten pertsonen eta familien kopuruak serieko baliorik handienak dira oraindik ere. 2020an beherakada egon zen, eta, hortik aurrera, kasuen kopuruak % 4ko igoera txikiak izan zituen urtez urte. 2023an igoera hori handitu egin zen, **adingabeen kopurua % 25 hazi baitzen**.

9. grafikoa. Genero Indarkeriaren biktima diren adingabeen familian esku hartzeko programan (BFA) arreta jaso duten pertsonak. 2017-2023




*Beste pertsona batzuk: aita ez-erasotzaileak eta adingabeekin bizi diren beste senide batzuk
Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta.

2023an artatutako kasuen % 46 **berriak** izan ziren, eta **32 adingaberenak** izan ziren: 11 neska (% 34) eta 21 mutil (% 66).

Mutilen presentzia nabarmen handiagoa da, programaren lehenbiziko urteetan (2017 eta 2018) gertatzen zen bezala. Baliteke urte horietan mutilen kasuak errazago bideratzea/detektatzea, kasu guztien % 79 baitziren 2017an eta % 63,3 hurrengo urtean (2019 eta 2022 urteen artean banaketa orekatu zen).

Adinari dagokionez, erregistratu ziren kasurik gazteenek lau urte zituzten. Batez besteko adina **10 urte** da.

Datuak tarteka sailkatuz gero, erdia baino gehiago (% 56) 11 urte baino gazteagoak dira: mutilen % 62 eta nesken % 45,5.



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna sustatzeko sailak emandako datuetan oinarrituta.

Adinari eta sexuari erreparatuta, eta programa martxan egon den zazpi urteetako datu guztiak kontuan izanda, aipatu beharra dago programaren laguntza jaso duten **15 eta 17 urte arteko nerabeen % 72** mutilak direla.

2023ko kasu berrien artean, bi adingabe **umezurtz geratu dira genero-indarkeriaren ondorioz**.


Bost adingabek (% 16) beren aitaren aurkako **Babes-agindua** zuten. Programa abian jarri zenetik, ia urtero erregistratu dira babes-neurri hori duten kasuak (soilik 2020 urtean ez zen halakorik erregistratu).

Adingabeen **amen kasuan, % 81ek** (17 emakumek) beren alde ezarritako **Babes-neurri bat dute edo izan dute**, eta datu hori bat dator ohiko balioekin.

1.6. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO TELEFONO BIDEZKO INFORMAZIO- ETA ARRETA-ZERBITZU ESPEZIALIZATUA 24 ORDUZ (900 840 111)

2023an, Zerbitzuak **1.717 dei jaso zituen Bizkaitik**, hau da, batez beste 143 dei hilean.

Ondoko grafiko honek adierazten du zerbitzuaren erabilerak zer-nolako bilakaera izan duen Bizkaian. Ikus daitekeenez, hasierako urteetan nabarmen hazi zen jasotako deien kopurua; alabaina, 2008tik aurrera, kopurua egonkortu egin zen. Urtean 1.700 dei jasotzen dituzte gutxi gorabehera. 2017an dei-kopurua jaitsi egin zen, eta azken urteetan 1.500 dei inguru izan dira, batez beste. Zerbitzuak emandako datuen arabera, 2023an jasotako deien kopurua % 11,6 hazi zen aurreko urtearekin alderatuta.



(*) Dei egokiak: emakumeen aurkako indarkeriarekin lotura duten deiak bakarrik.

(**) Zerbitzuaren datu-basean egindako aldaketa batek 2011ko eta 2012ko datuen doikuntza desberdina eragin zuen erregistroan, eta, beraz, ezin dira erreferentziatzeko aldiaren gainerako urtekoekin alderatu, bilakaeraren ikuspegia izateko.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. 2007ko eta 2008ko datuak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila; 2009-2011, Herrizaingo Sailak emanak, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bitartez; 2012, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea; 2013tik, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila.

Jasotako dei guztietatik % 38,3 Estatuko genero-indarkeriaren arloko informazio eta aholkularitza juridikoko telefono-zerbitzuak (016) bidali zuen. Zerbitzu horrek 1.382 dei jaso ditu Bizkaitik, eta horietatik % 47,5 zerbitzu autonomikora bideratu dira; zehazki, 657 dei.

Indarkeria-motaren arabera azterketak erakusten du dei gehienak (alegia, % 89,1) bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriarekin lotuta daudela. Deien % 6,6 sexu-indarkeriarekin lotuta daude, eta % 4,3, familia barruko genero-indarkeriarekin.

Aipagarria da bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriarekin lotutako deiak egin dituzten pertsonen % 77,4k, arreta eman zaien unean, biktimari eragindako tratu txarren kontzientzia-maila ertaina (% 38,6) edo altua (% 38,8) dutela, eta kasuen % 65,6an, biktimak gero eta tentsio handiagoko egoeretan egon dira.

Bestalde, zerbitzuak erregistratu egiten ditu jasotzen dituen deien oinarrian diren arrazoiak; dei baten atzean arrazoi bakar bat edo gehiago izan daitezke. Txosten honen erreferentzia-urtean, deien % 22,7 arrazoi bakarrak eragindakoak dira, eta % 77,3 arrazoi bat baino gehiagok eragindakoak izan dira. Deia egiteko arrazoi nagusiak laguntza eta jarraipen telefonikoa, orientazioa eta informazioa eskatzea izan dira.

Deien kopurua eta egindako esku-hartzeen mota ere erregistratzen dira. Aldi honetan, kasu guztietan egin dira esku-hartze bat baino gehiago, eta deien atzean dauden arrazoiei erantzun diete esku-hartze horiek. Gainera, esku-hartze mota bat, laguntza emozionala, ez da arrazoi gisa erregistratzen, baina beharrezkoa izaten da deien % 75ean.

Deiak egin zituzten pertsonak

Batzuetan, pertsona berak behin baino gehiagotan deitu du Zerbitzura; hori dela eta, erregistratutako 1.717 deiak **1.208 pertsonari** dagozkie. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 99 pertsona gehiago zenbatu dira.

Jasotako deien kopuruak bezala, zerbitzu hori erabili duten pertsonen kopuruak ere nabarmen egin zuen gora aztertutako epearen (2006-2023) hasierako urteetan. Igoera horren ondoren, egonkor mantentzen da erabiltzaile-kopurua: 1.000 erabiltzaile inguru.

2023an Zerbitzuarekin harremanetan jarri diren **hamar lagunetik bederatzi emakumeak dira, 2006an Zerbitzua abiatu zenetik gertatu den bezala.**

Kontsultaren bat egiten duten pertsonen banaketa aurreko urteko zenbakiek erakusten zuten bera da: % 70 indarkeriaren biktima diren emakumeak dira; % 23,6 biktima diren pertsonen hurbileko edo familiako pertsonak; eta % 6,4 profesionalak dira.

Erabiltzaileen profilaren bilakaerari dagokionez, aipatzekoa da nabarmen hazi dela biktimaren ahaideak edo hurbilekoak direnen kopurua: 2023ko datua (285) 2006koa (103) baino hiru aldiz handiagoa da ia.

Zerbitzura deitzen duten emakume biktimei dagokienez, berriz, alderdi hauek dira aipagarriak:

- Zerbitzua erabiltzen duten emakume gehienak (% 89,1) bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktimak dira.
- Tratu txar psikologikoa kasu guztietan ageri da, bai tratu txar mota bat jasan duten emakumeen artean, bai tratu txar mota gehiago jasan dituzten emakumeen artean.
- Biktimen % 55,3k adingabeko umeak dituzte beren ardurapean.

1.7. ETXEBIZITZA-ARLOKO LAGUNTZAK

Gaur egun, indarkeriaren biktima diren emakumeen aldeko ekintza positiboko bi neurri daude etxebizitzaren arloan:

1. Alokairu-erregimeneko etxeak zuzenean esleitzea egoera larrietan eta salbuespen-egoeretan, eskatzailea udalaren edo Foru Aldundiaren harrera-etxeen edo -zentroen erabiltzailea izan den kontuan hartuz.

2023an **27 etxebizitza** esleitu ziren Bizkaian, hau da, EAEn eskatu eta esleitutako guztien (54) erdia. Eskariak Bizkaiko Foru Aldundiak (14), Bilboko Udalak (9), Durangokoak (2), Amorebieta-Etxanokoak (1) eta Santurtzikoak (1) egin zituzten. Bestetik, eskaera bat **ukatu** zen, eta urte bukaeran bi eskaera geratu ziren ebatzi gabe. Guztira 30 eskaera erregistratu dira Bizkaian, eta denak aurkeztu ziren 2023an.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren datuek erakusten dutenez, 2023an aurreko urtean baino eskaera gutxiago onartu ziren, bai Bizkaian, bai EAEn. Alabaina, aztertutako denbora-tartea kontuan izanda, zifra altuenetakoa erregistratu zen orduan.

Onuradunen ezaugarriak

- Emakume onuradun gehienak 40 urtetik beherakoak dira (% 66,7).
- Emakume horien % 70,4 atzerriko herrialdeetan jaiotakoak dira (ehuneko hori 2022koa baino 8,4 puntu txikiagoa da).
- Bizikidetza-unitatearen (BU) tamainari dagokionez, pertsona bakarreko familien bost kasu erregistratu dira. Gainerakoak bi, hiru eta lau pertsonako familiak izan dira.

2. Puntu gehigarriak ematea alokairu-erregimeneko Babes Ofizialeko Etxebizitzaren promozioetako baremazioetan.

2023ko abenduaren 31n eskura zeuden datuen arabera, **genero-indarkeriaren biktima izatea frogatu zuten emakumeen 903 espediente aktibo zeuden Etxebiden** (Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua), Bizkaiko lurraldean. Neurri hori abian jarri zenetik, espediente aktiboen kopurua nabarmen handitu da. Datua 2013koarekin alderatuz gero, % 192,2ko hazkundera ikus daiteke.

2023an **283 alta** zenbatu ziren. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 2023ko zifrek erakusten dute espediente aktiboak eta altak ugaritu egin direla; beraz, aztertutako aldiko zifrarik altuenak erregistratu dira bi kausetan.

Horrez gain, etxebizitza-esleipenen kopuruak % 195 egin du gora: aurreko ekitaldian 20 esleipen egin ziren, eta 2023an, aldiz, 59 emakumeri **esleitu zaizkie** etxebizitzak alokairu-erregimenaren neurriaren bidez Bizkaian. Hala, esleipenen kopurua aurreko urteetako antzekoa da berriz ere.

Genero-indarkeriaren biktima izatea egiaztatzen duten emakumeen espedienteen ezaugarriak (espediente aktiboak, esleipenak, altak):

Bizikidetza-unitatearen (BU) eraketa

- **Espediente aktiboak** % 58,1 bi eta hiru kideko Bizikidetza Unitateetan bizi diren emakumeei dagozkie.
- 2023ko **esleipen** gehienak (% 88,1) **BUan ahaideak dituzten emakumeei** dagozkie.
- **Erregistro berrietan** daude pertsona bakarreko familia gehien (% 35,7).

Adina

- Erregistratutako **espediente aktiboetan** identifikatu dira **31 eta 50 urte bitarteko** emakume gehien (% 65,9).
- Urtean zehar egindako **esleipenen % 71,2** ere 31 eta 50 urte bitarteko emakumeei egokitu zaizkie, espediente aktiboak kasuan bezala.
- Erregistratutako **alta** gehienak (% 71,4) 18 eta 40 urte bitarteko emakumeei dagozkie.

Nazionalitatea


- Espediente **aktiboetatik**, 304 espediente emakume atzerritarrei dagozkie (% 33,7), eta emakume horiek guztiek 33 nazionalitate desberdin biltzen dituzte.
- Atzerriko emakumeen portzentajea % 45,8 da etxebizitza bat **esleitu** zaienean kasuan; guztira 27 emakume dira, 11 nazionalitate desberdinetakoak.
- Erregistroan **alta** eman zuten emakumeetatik 91 (% 32,2) atzerritarrak dira, 20 nazionalitate desberdinetakoak.

1.8. DIRULAGUNTZAK (1/2004 Lege Organikoaren 27. artikulua)

2023an, dirulaguntzak jasotzeko **344 eskaera**⁵ jaso ziren Bizkaitik, hots, EAEn egindako eskaera guztien % 51,6.

Aztertutako eskabide guztietatik, 200 **esleitu** dira, 84 **ukatu** dira eta 16 eskaera **bertan behera** geratu dira. Ekitaldia amaitzean, 44 eskaera **ebatzi gabe** zeuden.

Ondoko grafiko honetan, aztertutako epean arreta jaso duten eskabideen kopuruan izan den hazkunde nabarmena ikus daiteke: 2009koaren aldean, 2023ko kopurua urte hartakoa halako hamalau da. Gainera, 2023an, 91 eskabide gehiago kudeatu dira eta 50 eskabide gehiago esleitu dira aurreko urtean baino; horrenbestez, haxe da, orain artean, eskabide gehien kudeatu eta esleitu diren urtea.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. 2009-2011, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza. Herrizaingo Saila; 2012, Emakunde-Emakumearen Euskal Institutua; 2013tik, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila.

Laguntzen zenbatekoak eta onuradunen ezaugarriak

Laguntzaren zenbatekoa, oro har, sei hilabeteko langabezia-sariaren baliokidea da, eta zabaldu daiteke hamabi, hemezortzi edo hogeita lau hilabeteri dagozkien kopurura, bi aldagai kontuan izanda: batetik, biktimaren **familia-erantzukizunak** (bere kargu dituen seme-alaben edo ahaideen kopurua), eta bestetik, biktimak nahiz biktimaren ardurapean dagoen pertsonaren batek duen **desgaitasun-maila** (% 33koa edo gehiagokoa).

⁵ Horietatik, 304 eskaera 2023an egin ziren; gainerakoak, 2022an ebatzi gabe geratu eta 2023an izapidetu ziren eskaerak dira.

Jasotako zenbatekoari erreparatuta, honako hauek dira 2023ko dirulaguntzen onuradunen banaketaren ezaugarriak:

- Onuradunen **% 23k oinarrizko zenbatekoa** jaso zuen; hau da, langabeziagatik 6 hilean jasotzen den kopurua (2.880 €). Aitortutako desgaitasunik eta ardurapeko ahaiderik ez duten emakumeek osatzen dute talde hori.
- Onuradunen **38,5ek%** langabeziako 12 hileko sariaren parekoa jaso du (5.760 €). Beren kargu pertsona bat duten emakumeak edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten emakumeak dira.
- Onuradunen **% 36k** 18 hilean jasotzen den sariaren parekoa jaso du (8.640 €); ardurapean bi ahaide edo gehiago dituzten emakumeak dira, edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen pertsona baten ardura duten emakumeak; edo beren ardurapean pertsona bat izanik, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten emakumeak.
- Gainerako **% 2,5ek** jaso zuen kopurua (11.520€) langabeziako 24 hilean jasotzen den kopuruaren parekoa da; hau da, emakume horiek dekretuak jasotzen dituen **zaurgarritasun handieneko** bost egoeretako batean daude, beren kargu dituzten pertsonen kopuruagatik eta pertsona horien edo/eta eskaria egin duen pertsonaren desgaitasun-maila handia delako.

2023an, emakume onuradunen **% 38,5ek dirulaguntzarik handienak** (18 eta 24 hilabeteren baliokideak) jaso zituzten; ehuneko hori aurreko urtekoa baino 1,5 puntu txikiagoa da. Horrez gain, balio absolutuei dagokionez, aztertutako aldiko zifrarik handiena erregistratu da, guztira 77 emakumek jasotzen baitituzte laguntza horiek.

Jaioterriari dagokionez, **emakume onuradunen % 62 atzerriko herrialdeetan jaiotakoak dira**. Zehazki, 23 herrialdetakoak dira, gehienak Latinoamerikakoak (% 69,4). Afrikako herrialdeetan jaiotako emakumeek kasuen % 23,4a osatzen dute; Europako herrialdeetan jaiotakoek, berriz, % 6,5a; eta Asiako herrialdeetan jaiotakoek, % 0,8a.

Adinari dagokionez, emakume onuradunen **% 69k ez dituzte 40 urte baino gehiago**: 18tik 30era bitarteko 64 emakume (% 32) erregistratu dira, eta 31tik 40ra bitarteko 74 emakume (% 37). 41etik 50era arteko tartean 52 emakume (% 26) daude; 51tik 64rako tartean, berriz, bederatzi emakume (% 4,5), eta emakume bakarra da 64 urtetik gorakoa (% 0,5).

Bizkaian esleitutako eskabideak **33 udalerritako** emakumeenak dira. Aurreko urteetan bezala, Bilbo da emakume onuradun gehien biltzen dituen udala.

2. POLIZIA-ESPARRUA

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren biktimizazioen estatistikatik datozen datuak aurkeztuko ditugu. Estatistika horrek *“legez kontrako egintza penal guztiak”* biltzen ditu, *“Ertzaintzan egintza penal gisa erregistratuta geratu direnak, herritar batek jarritako salaketa baten bidez edo atestatu baten bidez”*.

Sail horrek egiten duen sailkapenaren arabera, **emakumeen aurkako indarkeria** terminoak hiru mota hartzen ditu barne, biktimak indarkeria hori gauzatzen duen pertsonarekin zer harreman duen:


1. **Bikotekideak edo bikotekide ohiak** eragindako indarkeria.
2. **Familia barruko** genero-indarkeria: gizonak familia-eremuan emakumeen aurka eragindako indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik).
3. Gizonak aurreko eremuetatik kanpo emakumeen aurka eragindako **sexu-izaerako indarkeria**.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BIZKAIAN. EZAUGARRI NAGUSIAK

2023an, Ertzaintzak emakumeen aurkako indarkeriaren **3.505 biktimizazio** erregistratu zituen Bizkaian (EAEko guztien % 53), ia **hamar gertaera egunean**. Biktimizazio-tasa (tasa 10.000 emakumeko) **58,7** da, aurreko urteko zifra baino bost puntu handiagoa (2022ko tasa 53,7 izan zen).

2019an, emakume bat hil zen familia barruko indarkeriaren ondorioz (Bilbo).

Aurreko urtearekin alderatuta, biktimizazioen bolumena % 9,7 handitu da (3.194 gertakari 2022an). Aztertutako aldi osoan, **2023ko datua erregistroko maximoa da gaur gaurkoz**.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta.


Bilakaerari dagokionez, adierazle horrek **goranzko joera** du Bizkaian. Zifra bikoitza baino gehiago hazi da 2003 eta 2023 urteen artean(% 109). Balio absolutuetan, 2003an baino 1.835 biktimizazio gehiago jaso ziren azken urtean, hots, 2023an.

2023an, gertakari horien **emakume biktimen** kopurua 2.758 izan zen, eta biktimizazioen kopurua baino txikiagoa da; izan ere, baliteke biktima batek indarkeria-gertakari bat baino gehiago jasatea.

Indarkeria-motaren arabera, kasuen % 73,2 bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondoriozkoak dira; % 14,5 familia barneko indarkeriari dagozkio; eta gainerako % 9,3a sexu-askatasunaren kontrako delituei.

Aurreko urtearekin alderatuta, hiru indarkeria-motek egin dute gora: bikotekideak/bikotekide ohiaren indarkeriak % 9a; familia barrukoak % 8a, eta sexu-indarkeriak, % 18,6a.

14. grafikoa. Emakumeen biktimizazioak, emakumeen aurkako indarkeria dela eta, indarkeria-motaren arabera. BLH. 2023




Lurralde-banaketari dagokionez, ohiko joerari eutsi diote datuek, eta 2023an orokorra izan da biktimizazioen erregistroa Bizkaian: indarkeria-mota horiekin lotutako gertakariren bat gertatu zen Bizkaiko 112 udalerrietatik 95etan (biztanleriaren % 99,5 biltzen dute udalerri horiek).


1.000 biztanletik gora dituzten Bizkaiko udalerri guztietan identifikatu da biktimizazioen bat.

4. irudia. Emakumeen aurkako indarkeriaren (EAI) ondoriozko biktimizazioen banaketa: kopurua eta tasa 10.000 emakumeko. 2023

EAIren ondoriozko biktimizazio-kop.




EAIren ondoriozko biktimizazio-tasa*



Bizkaiko hamar udalerri handienek (25.000 biztanletik gorakoak) izan zituzten biktimizazio gehienak: **100 gertakaritik 69** udalerri horietako batean gertatu ziren; datu hori bat dator udalerri horiek duten biztanleriaren bolumenarekin.

Udalerri horietako bakoitzak errealitate jakin bat du, eta errealitate horiek agerian uzten dute biktimizazioen kopurua ez dagoela biztanleen kopuruaren mende soilik. Udalerri jakin bateko biktimizazio-kopurua eta biztanleria-bolumena (tasa 10.000 emakumeko) erlazionatzen dituen adierazleak agerian jartzen duenez, alde nabarmenak daude udalerrien artean, lurraldeko batezbestekoarekin alderatuta.

Kontuan hartu behar da datu horiek (zerbitzu publikoen erregistroetatik hartuak) ez dutela adierazten fenomenoak udalerri horietako bakoitzean duen intentsitatea, baizik eta **sistemaren erantzun-ahalmena, biztanleek baliabide hori zer mailatan erabiltzen duten eta jarduera poliziala bera.**




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta.

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria


2023an, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatik, emakumeen **2.567 biktimizazio** izan ziren Lurraldean, aurreko urtean baino % 9 gehiago. Guztira 1.934 emakume biktima izan ziren (2022an, 1.770 emakume biktima).

Denboran zeharreko bilakaerak erakusten du, Ertzaintzak Bizkaian jasotako datuen arabera, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-gertakariak **hazkunde erregularra** izan dutela. Aztertutako aldian, **2023ko datua serieko maximoa da**, eta hasierako urteko datuaren bikoitza baino handiagoa da (% 113ko gorakada).



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta.

Biktimizazioen bilakaera aztertzeko, **tasa 10.000 emakumeko** datuari ere errepara dakioke; 2023an, **43,0** zen tasa hori. Aldiaren hasierarekin alderatuz gero, tasa **17 puntu baino gehiago igo da**.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta.

Aurreko urteetan bezala, gertaeren erdia baino gehiago (% 52) banantze-testuinguruan gertatu ziren: erasotzailea jada **ez zen biktimaren egungo bikotekidea**.

Jaiolekua kontuan hartuta, biktimen % 52 EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeak ziren (1.004 emakume), eta % 48, berriz, atzerriko herrialdeetan jaiotakoak (930 emakume). Aurreko urteko datuekin alderatuta, bi taldeak handitu dira, neurri desberdinean bada ere (% 3,4 lehenengoa eta % 16,4 bigarrena).

Adinari dagokionez, ohiko joeraren ildotik, 2023an ere adin-tarte guztietako biktimak erregistratu ziren, **eta bi heren inguruk (% 62,7) ez dute 40 urte baino gehiago**. Talde horren barruan, 30 **adingabe** daude (2022an 37 ziren): 14 eta 17 urte arteko 29 nerabe eta 14 urtetik beherako bat.

Familia barruko indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu)

2023an, familia barruko indarkeriarekin lotuta, Ertzaintzak emakumeen **613 biktimizazio** erregistratu zituen Bizkaian; hau da, 10,3ko biktimizazio-tasa 10.000 emakumeko.

Biktimizazioen kopurua % 7,9 handitu da aurreko urtekoarekin alderatuta; ondorioz, 2023ko datua da 600 gertakari gaingitu dituen bakarra, 2020ko datuaz gain⁶.

Indarkeria-mota horren ondoriozko hildako bat erregistratu zen Bilbon.

Ohikoa den bezala, 2023an ere biktima erasotzailearen ama (% 45,2) edo senidea (% 36,4) zen gertakari gehienetan. Gainerako % 18,4an, biktima erasotzailearen alaba adingabe bat zen.


Adin-tarte guztietako biktimak erregistratu ziren. Aurreko urteetan bezalatsu, familia barruko indarkeriarekin lotutako gertakariak maizago erregistratzen dira adingabeen (% 28) eta 50 urtetik gorako emakumeen (% 37) kasuan.

⁶ 2020an familia barruko indarkeriarekin lotutako 654 gertakari erregistratu ziren, pandemiaren eta horri aurre egiteko neurrien testuinguruan (beste arreta-zerbitzu batzuetan ere familia barruko indarkeriaren kasuen gorakada antzeman zen).

Sexu-indarkeria

2023an, Ertzaintzak sexu-askatasunaren aurkako delituen ondoriozko emakumeen **325 biktimizazio** erregistratu zituen Bizkaian (320 emakumezko biktima). Sexu-indarkeriaren ondoriozko lurralde-tasa **5,4** biktimizaziokoa izan zen 10.000 emakumeko (4,6 izan zen 2022an).

2023ko datua indarkeria-mota horretan orain arte erregistratutako **maximoa** da. 2016tik aurrera, gorakadak erregistratu dira urtez urte, 2020an izan ezik.



Oharra: 2009tik aurrera (urte hori barne), datuak *erasotzailea biktimaren familia-eremukoa ez den* biktimizazio-kasuei buruzkoak baino ez dira. Aurreko urteetako datuek sexu-askatasunaren aurkako delitu guztiak jasotzen dituzte, biktimaren eta erasotzailearen arteko harremana alde batera utzita, eta, beraz, bikotekidearen/bikotekide ohiaren eta beste ahaide batzuen sexu-erasoak hartzen dira kontuan. Grafikoa apurketa hori lerro etenarekin eta kolore-alaketarekin adierazi da.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Segurtasun Saila.

Indarkeria-mota horren kasuan ohikoa den bezala, poliziak erregistratutako biktimak emakume oso gazteak dira, eta erdia baino gehiago (% 56) ez dira 20 urte baino zaharragoak; horien artean, 137 adingabeak dira (93 adingabe 2022an). Ondorioz, esan daiteke **sexu-indarkeriaren hamar biktimatik lau baino gehixeago adingabeak direla**.

3. EREMU JUDIZIALA

3.1. PROZESU JUDIZIALAK

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2023an, 378 auzi zibil sartu ziren Bizkaiko barruti judizialetan, zuzenean edo beste organo batzuek bideratuta.

Azken bi ekitaldietan auzi zibilak nabarmen ugartu direla identifikatu dugun arren, kopurua egonkorrago mantendu zen 2023an: 2022an baino sei auzi zibil gehiago erregistratu ziren.


Berriro ere, sartu diren auzi zibilen eta penalen arteko aldea adierazgarria da. 2023an 4.749 auzi penal sartu ziren. 2022an baino 105 auzi penal gehiago zenbatu ziren; beraz, 2023ko zifra aztertutako aldiko handiena izan da.

Salaketei dagokienez, 3.627 zenbatu ziren Bizkaiko auzitegietan (aurreko ekitaldian baino % 5,1 gehiago). Ondorioz, 2023koa da 2005etik erregistratu den baliorik handiena, eta esan nahi du egunean 10 salaketa jarri zirela batez beste. Demanda gehienak (% 69,8) biktimek jarri zituzten, eta polizia-atestatua izan zen gehien erabili zuten bidea (% 65,3).

Gainera, 776 Babes-agindu abiarazi dira guztira, hau da, 2022an baino % 23,4 gehiago. Aplikatutako aginduen kopurua ere hazi da; kasu honetan, % 39,1 (guztira 615 agindu zenbatu dira). Bestalde, 161 agindu ezetsi dira, hau da, aurreko ekitaldian baino % 13,9 gutxiago.

Ondoko grafikoak adierazten duen bezala, aztertutako denbora-tartea kontuan hartuta, 2023an erregistratu ziren abiarazitako eta aplikatutako babes-aginduen zifrarik handienak.


Horrez gain, ikus daiteke aurreko ekitaldiko datuek alde nabarmena adierazten zutela aplikatutako aginduen eta ukatutakoen artean. 2023an, alde hori are nabarmenagoa da: abiarazi ziren agindu guztietatik, % 79,3 aplikatu ziren, eta % 20,7, ukatu.



Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuetan oinarrituta.

2023an abiarazitako babes-aginduen datuei erreparatzen badiegu, zehazki **biktimen nazionalitateari**, gorakada nabarmenak ikusiko ditugu nazionalitate espainiarreko eta atzerriarreko emakumeen kopuruan: lehenengoen zifra % 25,5 hazi da aurreko ekitalditik honetara, eta bigarrenena, % 20,5. Bildutako datuen arabera, emakume biktimen % 58,4k nazionalitate espainiarra dute, eta % 41,6 atzerrian jaiotakoak dira.

Grafikoak abiarazitako babes-aginduen bilakaera eta biktimen nazionalitatea adierazten ditu. Ikus daitekeenez, nabarmena da Espainiako emakumeen kopuruak behera egin zuela 2020 urtera arte; atzerriko emakumeen kopurua, berriz, ez da askorik aldatu. 2020tik aurrera, gora egin zuten bai Espainiako bai atzerriko emakumeen kopuruek.



Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 2023an, salatutako gizon espainiarren kopuruak gora egin du (+% 22,8), baita atzerrian jaiotakoena ere (+% 24,2). Bi kopuruek neurri berean egin dutenez gora, proportzioak egonkor mantendu dira: auzipetutako gizonen % 56,3k nazionalitate espainiarra dute, eta % 43,7k, atzerritarra.

Biktimaren eta salatuaren arteko harremanari dagokionez, kasu gehienetan (% 73,8) indarkeriaren egilea biktimaren ezkontide edo bikotekide ohia zen. 2023an nabarmen hazi ziren horrelako kasuak, hau da, biktimak eta erasotzaileak harreman afektiboa izana zuten kasuak: aurreko urtean baino % 64,7 gehiago zenbatu ziren. Zehazki, 237 kasu identifikatu ziren. Hori da, askogatik, aztertutako aldiko (2005-2023) zifrarik handiena.

Kasuen % 26,2an, indarkeriaren egiletza egungo ezkontideari edo bikotekideari dagokio, eta harreman afektiboek biltzen dute babes-aginduen kopururik handiena (% 75,9).

Auzipetutako 726 gizonetatik, % 61,4k espainiar nazionalitatea zuten, eta % 38,6k, berriz, atzerritarra. **Prozeduraren ebazpenari** dagokionez, auzibideen % 96an epai kondenatzaileak eman ziren. Hala ere, prozeduren amaierako formei dagozkien zenbakiek erakusten dutenaren arabera, % 24 bakarrik amaitu zen epai kondenatzailea emanda.

Adingabeak: babes eta segurtasunerako kautelazko neurri zibilak

Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen babesari dagokionez, kautelazko neurri zibil hauek nabarmentzen dira: bisiten araubidea, guraso-ahala eta zaintza etetea eta adingabeak babesteko neurriak hartzea arrisku edo kalteak saihesteko.

2023an zehar adingabeak babesteko 38 neurri ezarri dira guztira: horietako 24 zaintza eteteari buruzkoak izan ziren; beste zazpi, bisita-erregimena eteteari buruzkoak; bost, guraso-ahala eteteari buruzkoak, eta, horrez gain, bi babes-agindu ezarri ziren.

2005etik, 466 neurri ezarri dira Bizkaian. Horien % 46,7 zaintza eteteari buruzkoak dira (218); bisita-erregimena etetea neurrien % 26 da (121); adingabeak babesteko neurriek % 28,2a osatzen dute (93); eta guraso-ahala etetea kasuen % 7,3 da (34). Neurrien % 91,4 babes-agindu baten bidez ezarri dira.

4.OSASUN-ARLOA

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak 2022an eta 2023an eskuratutako zenbait datu aurkezten dira; zehazki, Bizkaiko **Ospitaleko Arretan** eta **Lehen Mailako Arretan** (LMA) hautemandako genero-indarkeriako kasuei buruzkoak. Kasuak **14 urteko eta gehiagoko** emakumezkoei buruzkoak dira.

4.1. OSPITALEKO ARRETA

2023an, genero-indarkeriarekin lotutako 640 kasu identifikatu ziren Bizkaiko larrialdi-zerbitzuetan eta ospitaletako kontsultetan. Kasu gehienak larrialdi-zerbitzuetan emandako arretari dagozkio (% 95), kasuen % 3,1 ospitaleko beste zerbitzu batzuetan emandako arretarekin lotuta daude, eta kasuen % 1,9 Osasun Mentaleko Sarean artatutakoak dira.

Larrialdi-zerbitzuetan artatutako kasuei dagokienez, identifikatu diren kasuen kopurua % 28,1 handitu da aurreko ekitalditik hona; beraz, aurtengo datua orain arte aztertutako epeko (2013-2023) zifrarik handiena da.

Osasun-erakundeei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu joera berbera mantendu dela 2013 urtetik hona: Bilbo-Basurtuko ESlak detektatu ditu kasu gehien (% 45,8); gero, Barakaldo-Sestaoko ESlak (% 19,1), Barrualde-Galdakaoko ESlak (% 15,2) eta Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESlak (% 14,9) aipatu behar dira. Gainerako % 5a Uribeko ESlak detektatu du.

Datu horiek aurreko ekitaldikoekin alderatuz gero, agerikoa da alderik handienak Bilbo-Basurtuko ESlan eta Barrualde-Galdakaoko ESlan daudela; izan ere, 2022an baino 59 kasu gehiago artatu ziren lehenbizikoan, eta bigarrenean, berriz, 43 gehiago.

3. taula. Larrialdietan hautemandako kasuak, osasun-erakundearen arabera.
BLH. 2022-2023

	2022	2023	Δ
Barakaldo-Sestaoko ESI	95	119	+ 25,3
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESI	89	93	+ 4,5
Barrualde-Galdakaoko ESI	52	95	+ 82,7
Bilbao-Basurtuko ESI	227	286	+ 26,0
Uribeko ESI	24	31	+ 29,2
GUZTIRA	487	624	+ 28,1

Oharra: ESI: Erakunde Sanitario Integratua. Barakaldo-Sestaoko ESlak San Eloy Ospitalea barne hartzen du; Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESlak Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea barne hartzen du; Barrualde-Galdakaoko ESlak Gernika-Lumo Ospitalea eta Galdakao-Usansolo Unibertsitate Ospitalea barne hartzen ditu; Bilbo-Basurtuko ESlak Basurtuko Unibertsitate Ospitalea barne hartzen du; Uribeko ESlak Urdulizko Alfredo Espinosa Ospitalea barne hartzen du.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

Ospitaletako larrialdietan hautemandako kasu gehienak **40 urte baino gutxiagoko** emakumezkoen kasuak dira (% 62,8). Larrialdietako osasun-erregistroek 50 urtetik gorako emakumeen presentzia urria islatzen dute, gainerako adin-taldeekin alderatuta: Bizkaiko Ospitaletako Larrialdi Zerbitzuen bidez hautemandako kasuen % 15 dira adin horretakoak.

4.2. LEHEN MAILAKO ARRETA (LMA)

2023an, lehen mailako arreta-zerbitzuak kasuen zifrarik altuena erregistratu zuen aztertutako denbora-tarte osoan (2013-2023). Guztira genero-indarkeriarekin lotutako 538 kasu identifikatu zituen urtean zehar, aurreko ekitaldian baino 137 kasu gehiago.

Datu hori osasun-erakundeka aztertuta, ikus daiteke kasuen banaketa 2022ko zifrek adierazten zutenaren antzekoa izan dela. Aurreko ekitaldietan gertatzen zen bezala, Barrualde-Galdakaoko ESIak detektatu zituen kasu gehien (% 41).

Horrez gain, datuek erakusten dute oro har 2023an kasu gehiago detektatu zirela 2022an baino (Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESIa kenduta, detektatutako kasuen kopurua egonkor mantendu baitzen): Barakaldo-Sestaoko ESIak 15 kasu gehiago detektatu zituen, eta Barrualde-Galdakaokoak, berriz, 47 kasu gehiago.

4. taula. Lehen Mailako Arretan hautemandako kasuak, osasun-erakundearen arabera.

BLH. 2022-2023

	2022	2023	Δ
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESI	74	77	4,1
Uribeko ESI	68	108	58,8
Barakaldo-Sestaoko ESI	19	34	78,9
Barrualde-Galdakaoko ESI	192	239	24,5
Bilbao-Basurtuko ESI	93	125	34,4
GUZTIRA	446	583	30,7

Oharra: ESI: Erakunde Sanitario Integratua.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

Adin-taldeka, Lehen Mailako Arretan hautemandako **kasuen erdiak, gutxi gorabehera** (% 48,4), **30 eta 49 urte** arteko emakumeei dagozkie. Kasuen % 25,2 osatzen dute 30 eta 39 urte bitarteko emakumeek, eta % 23,2 dira 40 eta 49 urte bitarteko emakumeak.

Lehen Mailako Arreta Zerbitzua da, betiere, **50 urtetik gorako** emakumeak gehiago agertzen diren espazioa, arretaren beste arlo batzuen aldean. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak emandako datuen arabera, gehiago agertzen dira espazio horretan, **kasuen % 27,8** biltzen baitira.